

| Helburu didaktikoak | Ebaluazio adierazleak |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. Euskal ahozko literaturako generoak, haien ezaugarriak eta obrak ezagutu eta erlazionatu. | <p>1.1. <i>Euskal ahozko literaturako generoen ezaugarriak identifikatzen ditu.</i></p> <p>1.2. <i>Euskal ahozko literaturako sorkariak eta dagozkien generoak erlazionatzen ditu.</i></p> <p>1.3. <i>Emandako literatura-testuak aztertuz, generoen bereizgarri diren ezaugarriak identifikatzen eta justifikatzen ditu.</i></p> |
| 2. XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-mugimenduak, haien ezaugarriak, autoreak eta obrak ezagutu eta erlazionatu. | <p>2.1. <i>XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-mugimenduak, haien ezaugarriak eta poemak erlazionatzen ditu.</i></p> <p>2.2. <i>Emandako XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-aleak eta autoreak erlazionatzen ditu.</i></p> <p>2.3. <i>Egindako erlazioak justifikatzen ditu, XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-mugimenduei buruz ikasitakoak erabiliz.</i></p> |
| 3. Ahozko euskal literaturako arlo bakoitzari dagokion edukiari (balada zahar, maite kantu, koplak zahar...) ahozko azalpenaren bitartez itxiera eman taldeka. | <p>3.1. <i>XX. mendeko hainbat poeten lanak arretaz aztertuz, olerki bakoitzaren gaia interpretatzen du.</i></p> <p>3.2. <i>Euskal ahozko literaturari buruzko ahozko testu laburretik (hitzaldi baten bideoa) beharrezko informazioa eskuratu (identifikatu, inferitu), eta emandako testu-sekuentziaren (deskribapen-sekuentzia) arabera eskema osatzen du.</i></p> |
| 4. Taldeka eginiko ahozko azalpenetan hartzaileen arreta bereganatzeko estrategiak azaldu eta praktikan jarri. | <p><i>Konpetentziari begira...</i></p> |
| 5. Elkarlana eskatzen duten ekimenetan jokaera asertiboa erakutsi eta lana burutzeko hartutako konpromiso pertsonalari modu arduratsuan eta autonomia maila onargarriarekin erantzun. | <p><i>Konpetentziari begira...</i></p> |
| 6. Irakurzaletasuna sustatzeko hainbat eleberri eskaini eta elkarreraginean arituz tertulia literarioa gauzatu. | <p>6.1. <i>Ikasleek, proposatutako liburuen artean bat hautatu eta tertulia literarioa gauzatzeko taldea osatzen dute. Tertulia literarioa gauzatzen dute.</i></p> <p>6.2. <i>Ikasleak haututako liburu horren harira, ohar kritikoa egiten du.</i></p> |
| 7. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean. | <p>7.1. <i>Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</i></p> <p>7.2. <i>Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</i></p> |